

**BERMEOKO UDALAREN, BERE MENDEKO ERAKUNDE AUTONOMOEN ETA BERUALAREN  
AHOALKULARITZA ETA DEFENTSA JURIDIKOA EDOZIEN AUZITAN ERAMATEKO ZERBITZU  
KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK.**

**1. Artikulua: XEDEA**

Bermeoko Udalaren, bere menpeko Erakunde Autonomoen eta BERUALaren Aholkularitza Juridikoa eta Defentsa edozein auzitan.

**2. Artikulua: ASISTENTZIA ZERTAN DATZA**

A) Aholkularitza juridikoa: Ondorengo betebeharrak suposatuko ditu, Udalarekiko eta aipatutako entitate horrekiko:

- Alkateak, Gobernu Batzordeak, Osoko Bilkurak, idazkari nagusiak, Erakunde Autonomoetako edo Berualako organoak zein zuzendariak planteatutako gaiei buruzko idatzizko txostenak egitea.
- Alkateak, zinegotzi delegatuek, idazkari nagusiak, zuzendariak edo teknikariek idatziz zein telefonoz egindako kontsultei erantzutea.
- Alkate, zinegotzi delegatuek, idazkari nagusiak edo presidenteak zein presidente eragileak eskatutako edozein batzarretan parte hartzea aholkularitza eskainiz.
- Alkateak, zinegotzi delegatuek, idazkari nagusiak, presidenteak, presidente eragileak edo zuzendariak eskatutako aldizkako presentzia fisikoa izatea udaletxean.

B) Defentsa juridikoa: Edozein jurisdikziotan udalaren eta aipatutako entitateen defentsa juridikoaz arduratzea, baita beraien agintari eta langileena, erakunde horreek daukeen harremana eta funtzinoetatik eratorritakoa bada.

Aitatutako asistentzia, lote honeetan zatitzen da:

2. Lotea: Aholkularitza juridikoa eta auzietako defentsa Zuzenbide Zibil arloan
3. Lotea: Aholkularitza juridikoa eta auzietako defentsa Zigor Zuzenbide arloan.
4. Lotea: Aholkularitza juridikoa eta auzietako defentsa Merkatal Zuzenbide arloan.
5. Lotea: Aholkularitza juridikoa eta auzietako defentsa Lan Zuzenbide arloan.

Kontratuaren exekuzioa eta gastua erakingorra eta kontrolatua izan daiten, Auzi bakoitzerako ordezkari onartu eta agindu ahal izateko, Auzi horrek suposatuko dauan gastuaren aurrekontua aurkeztu beharko dau esleipendunak.

Ganera, esleipendunak hileroko txostenak egin beharko dauz auzi egoera orokorraren eta Auzi bakoitzaren egoeraren barri emoteko. Hileko txostenek gutxienez hurrengoa jasoko dute:

- Epaiei egoera konkretua.
- Prozesu bakoitzaren egoera konkretua.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E40004319800O5B9X3H0M7M3

**Sinadurea eta data**

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARITZA TEKNIKARIA - 18/05/2020  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/05/2020  
10:30:42

EXPEDIENTE ::  
2020KON\_NE\_G0003  
Data: 27/03/2020  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



Hurrengo urteko urtarrilaren 30a baino lehen aurreko urtean emandako zerbitzu eta berezitasunen laburpen txostena aurkezteko da l. eranskinaren arabera, zeinek gutxienez hurrengoak izango duen:

- a. Emandako aholkularitza juridikoa guztira, prezioa guztira, aholkularitza mota (telefonikoa, presentziala, txostenak...), inbertitutako denbora, eta zein sailetik eskatu den
- b. Auzietako defentsaren inguruan, irabazitako eta galdutako epai kopuru orokorra eta epai konkretuen berezitasunak (identifikazioa, demandaren helburua, epaiaren laburpena, hartu beharreko neurri laburtuak...), gaika berezita eta prezioa guztira. Horretaz gain, balorazio orokorra egin beharko da, galdutako auziei lehentasuna emanez.

Epaitegiekin lotura duen edozein agiriren berri dagoenean:

- c. Ahalik eta arinen erregistro orokorretik jakinarazi behar da
- d. Alkate eta Idazkari nagusiari (udaleko, erakunde autonomoetako eta sozietate anonimoko gaietan) eta presidente eta zuzendariei (dagokion erakunde edo sozietatekoen gaietan) emailez aurreratuko zaie
- e. Epaien kasuan, epaiarekin batera laburpen bat egin beharko da, irmoa den edo ez zehaztu beharko da, irmoa ez den kasuetan jarri ahal diren errekurtsioak eta epeak zehaztuko dira zein errekurtsioa jartzeko edo ez jartzeko aholku arrazoitua, eta epai irmoen kasuan, batez ere kontrakoetan, udalak hartu ahal dituen neurrien inguruko proposamena egingo dira.
- f. Gainerako agirien inguruan, laburpena egingo da eta epeak badaude horiek gogorarazi.

Ordutegia: Asistentzia astelehenetik barikura 08:00etatik 20:00etara emongo da, halan eskatzen jakonean.

Ganera, ordutegi horren barruan, edozein batzarretara lagundu beharko da, halan eskatu ezker, batzarrean beharrezko aholkularitza juridikoa emoteko, batzarra edonon eta edonoiz dala be, proposamen ekonomikoan aurkeztutako ordu/prezioan. Batzar horren barruan sartuko dira be Udalaren jardueraren ondorioz, sortu leikezan baltzu, aholku-batzorde, alkarte, lantalde edo antzekoak.

Batzarra bizkaiko lurraldetik kanpo balitz, esleipendunak, Bermeoko Udalaren Aurrekontu Orokorra Betearazoteko Oinarrietan zehaztutako dietak eskuratzeko eskubidea izango dau.

Auzien kasuan, udalaren defentsa estrategia definitu eta adostu ahal izateko, batzarra egin beharko da, gainkargarik gabe, udalagaz adostutako lekuan eta orduan eta udalak berak egoki eristen dauzan partaideekaz, beti be goian zehaztutako ordutegiaren barruan. Batzar hori egin barik ezingo da epaitegietan ezelako agiririk aurkeztu ezta ezelako bistan agertu, ez bada premiatasun arrazoiengaitik horretarako baimena emoten dala espreski.

Batzar hau alkateak, idazkari nagusiak edota arduradun politiko eta teknikoek deitu ahal izango dabe.

Kontsultak erantzuteko epeak: Kontsulta errazak momentuan erantzun beharko dira, beti ere goian adierazotako ordutegiaren barruan eta, konplexuak, 5 laneguneko epean erantzun beharko dira.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E40004319800O5B9X3H0M7M3

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARITZA TEKNIKARIA - 18/05/2020  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/05/2020  
10:30:42

EXPEDIENTE ::  
2020KON\_NE\_G0003  
Data: 27/03/2020  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



Lan hizkuntza: Aholkularitza juridikoari jagokonez, txosten guztiak zein kontsulten erantzunak euskaraz emon beharko dira, ez bada kontrakoa eskatzen administrazioaren aldetik

Defentsa juridikoa ere, ahal dan guztietan, euskeraz egingo da.

Eta Bermeoko Udalean sortzen dan dokumentazioaren gehiengoa euskeraz danez, Udalak ez dauz espediente osoak itzuliko esleipendunak bere lana egin daian. Hori horrela, esleipendunaren ardura izango da beharrezko neurriak hartu edo baliabideak eukitzea dokumentazioa itzuli, ulertu, interpretatu eta abar egiteko, udalari ezelako gain kargarik emon barik.

### 3. Artikulua: ESKAINTZAK

Kontutan edukita lote bakotxean ahalik eta espezializazio eta kalitate handiena lortu gura dirala, lehiatzaile bakoitzari lote bakarria esleituko jako. Hori horrela, aurkezten dan loteen artean hurrenkera finkatu behar dau lehiatzaileak, lote bat baino gehiagotan eskaintza hobereana aurkeztu dauala ondorioztatuko balitz, esleipena egiteko zein lotetarako proposatu zehaztu ahal izateko.

Hurrenkera argi agertuko ez balitz, proposamena baztertu egingo da zuzenean.

Loteren bat hutsik geratuko baliz bakarrik izango litzateke posible lehiatzailearen bateri lote bat baino gehiago esleitzea. Kasua emongo balitz, lehiatzaile bakotxari ahalik eta lote gutxienean esleitzeko ahalegina egingo da eta, horretarako, aurreko paragrafoan aitaturako erispidea erabiliko da, hau da, lehiatzaileak finkaturako hurrenkera izango da hutsik geratutako loteen banaketa egiteko erabiliko dan erispidea.

**Aholkularitza juridikoari dagokionez**, aholkularitzaren ordu/prezioa finkatuko da, loteka adierazita, eta BEZa modu egokian bereizita. (Hau da, lote bakoitzean, lote horretarako proposatzen den ordu/prezioa zehaztu beharko da), kontutan edukita prezio estimatua zehazteko, 80 euroko ordu/prezioa hartu dela kontutan eta, ezingo dela inondik inora ordu prezio hori gainditu, BEZa kanpo.

**Defentsa juridikoari jagokonez**, Legelarien Euskal Kontseiluak zehaztutako ordainsarien arauetan zehaztutako kopuruei egiten zaien beherapen protzentuala adierazi beharko da.

Proposamenak, administrazio-baldintza zehatzen orrien VII. eranskinaren eredia jarraituta aurkeztu beharko dira.

Kontratu honen esleipena egin aurretik zabalik dagozan auzien kasuan, auzia amaitu arte aurreko esleipendunarekin jarraitzeko eskubidea edukiko dau udalak. Eskubide horretaz ez baliatzea erabakiko balitz, modu honetan banatuko dira, Legelarien Euskal Kontseiluak emondako Lanbideko Ordainsarien inguruko arau orientatzaileen arabera:

|                   | Arlo Zibila  | Zigor Arloa | Lan Arloa |
|-------------------|--|-------------|-----------|
| Prozedura Arrunta | -Demanda edo erantzuna: %60.<br>-Aurretiazko entzunaldia: %10.<br>-Epaiketa fasea: %30 |             |           |



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E40004319800O5B9X3H0M7M3

**Sinadurea eta data**  
MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARITZA TEKNIKARIA - 18/05/2020  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/05/2020  
10:30:42

EXPEDIENTE ::  
2020KON\_NE\_G0003  
Data: 27/03/2020  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidadea:  
Erregistro nagusia



|   |  |  |   |
|---|--|--|---|
| Kantitate Erreklamazioak  | -Oposizioa edo erantzuna: %70.<br>-Prozedurako besteak: %30  |  |   |
| Ahozko judizioa   | -Demanda aurkeztu edo Bista ekintzan bera erantzuteagaitik: %60.<br>-Bista ekintzan egindako bestelakoengaitik: %40. |  |   |
| Apelazio Errekurtsoa  | -Errekurtsoa prestatzeagaitik: %10<br>-Errekurtsoa aurkezteagaitik: %90.<br>-Errekurtsoa inpugnatzeagaitik: %100     |  |   |
| Ezohiko Errekurtsoa   | -Errekurtsoa prestatzeagaitik: %10<br>-Errekurtsoa aurkezteagaitik: %90.<br>-Errekurtsoa inpugnatzeagaitik: %100     |  |   |
| Kasazio Errekurtsoa   | -Errekurtsoa prestatzeagaitik: %10<br>-Errekurtsoa aurkezteagaitik: %90.<br>-Errekurtsoa inpugnatzeagaitik: %100     |  |   |
| Epai irmoen errebisioa  | -Errekurtsoa prestatzeagaitik: %10<br>-Errekurtsoa aurkezteagaitik: %90.<br>-Errekurtsoa inpugnatzeagaitik: %100     |  |   |
| Erantzunkizun zibila, kalteordainak edo antzekoak eskatzen badira |  | -Instrukzio fasea gertakariak kalifikatu barik: %30.<br>-Gertakariak kalifikatzeagaitik: %10.<br>-Bistan parte hartzeagaitik: %60. |   |
| Prozedura Laburtua  |  |  |   |
| Lan arloko Epaketak   |  |  | -Demanda edo alegazio epealdian jarduteagaitik: %40.<br>-Hortik aurrera epaiera arte jardun dauenari: %60 |

Bermeon, data.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E4000431980005B9X3H0M7M3

**Sinadurea eta data**

MIREN KARMELE MUÑO A RRIGAIN-IDAZKARITZA TEKNIKARIA - 18/05/2020  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/05/2020 10:30:42

EXPEDIENTE ::  
2020KON\_NE\_G0003  
Data: 27/03/2020  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



**I. ERANSKINA**

**AHOLKULARITZA ETA DEFENTSA JURIDIKOA. .... LOTEA**

..... URTEAN EMANDAKO ZERBITZUEN TXOSTENA.

..... urtean zerbitzu hauek eman dira:

**AHOLKULARITZA JURIDIKOAREN ATALEAN:**

1.- GAIA: .....

Sail eskatzailea: .....

Emandako aholkularitza honakoa izan da: .....

Eraitza honakoa izan da: ..... (txostena, proposamena, asistentzia telefonikoa, asistentzia presentziala, etab.).

Horretarako erabilitako ordu kopurua hau izan da: .....

Egondako inzidentziak (baleude): .....

Hori horrela, eta eskaintako ordu/prezioaren arabera, zerbitzu honen kostua honakoa izan da:

..... € BEZ kanpo (BEZ: ..... €.) DANATARA: ..... €.

2.- GAIA: .....

Sail eskatzailea: .....

Emandako aholkularitza honakoa izan da: .....

Eraitza honakoa izan da: ..... (txostena, proposamena, asistentzia telefonikoa, asistentzia presentziala, etab.).

Horretarako erabilitako ordu kopurua hau izan da: .....

Egondako inzidentziak (baleude): .....

Hori horrela, eta eskaintako ordu/prezioaren arabera, zerbitzu honen kostua honakoa izan da:

..... € BEZ kanpo (BEZ: ..... €.) DANATARA: ..... €.

3.- GAIA: .....

Sail eskatzailea: .....

Emandako aholkularitza honakoa izan da: .....

Eraitza honakoa izan da: ..... (txostena, proposamena, asistentzia telefonikoa, asistentzia presentziala, etab.).

Horretarako erabilitako ordu kopurua hau izan da: .....

Egondako inzidentziak (baleude): .....

Hori horrela, eta eskaintako ordu/prezioaren arabera, zerbitzu honen kostua honakoa izan da:

..... € BEZ kanpo (BEZ: ..... €.) DANATARA: ..... €.

**Aholkularitza juridikoaren kostua danatara:**

Orduak danatara: ..... ordu. Kostua: ..... € BEZ kanpo (BEZ: ..... €.)

DANATARA: ..... €.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E40004319800O5B9X3H0M7M3

**Sinadurea eta data**  
MIREN KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN-IDAZKARITZA TEKNIKARIA - 18/05/2020  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/05/2020  
10:30:42

EXPEDIENTE ::  
2020KON\_NE\_G0003  
Data: 27/03/2020  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



**DEFENTSA JURIDIKOAREN ATALEAN:**

*Auzi kopurua:* .....

*Irabazitakoak:* .....

*Galdutakoak:* .....

**Balorazioa:**

1. Auzia: (PROZEDURA ZENBAKIA).

Gaia:

Parte diren aldeak:

Epaitegia:

Egoera/Emaizta:

Epaiaren laburpena (balego):

Ondorioak/hartu beharreko neurriak (baleude):

2. Auzia: (PROZEDURA ZENBAKIA).

Gaia:

Parte diren aldeak:

Epaitegia:

Egoera/Emaizta:

Epaiaren laburpena (balego):

Ondorioak/hartu beharreko neurriak (baleude):

3. Auzia: (PROZEDURA ZENBAKIA).

Gaia:

Parte diren aldeak:

Epaitegia:

Egoera/Emaizta:

Epaiaren laburpena (balego):

Ondorioak/hartu beharreko neurriak (baleude):

4. Auzia: (PROZEDURA ZENBAKIA).

Gaia:

Parte diren aldeak:

Epaitegia:

Egoera/Emaizta:

Epaiaren laburpena (balego):

Ondorioak/hartu beharreko neurriak (baleude):

**Auziak murrizteko edo irabazteko hartu beharreko neurriak edo proposatzen direnak:**

-  
-  
-  
-



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E40004319800O5B9X3H0M7M3

**Sinadurea eta data**

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARITZA TEKNIKARIA - 18/05/2020  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/05/2020  
10:30:42

EXPEDIENTE ::  
2020KON\_NE\_G0003  
Data: 27/03/2020  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

